

## 4. IRABAZI ITURRIAK

Enpresaren diru-sarrerak ordainketa bakarraren bitartez izango dira, hau da, aktibo salmenten bitartez, eta horretarako publizitatea egingo dugu. Plazoka ordaintzeko aukera ere emango dugu, baina horrek produktuaren azken kostua handituko du, hau da, osotara 220€ gehiago ordaindu beharko dira. Urte batean ordaintzeko epea jarriko dugu, hilabetero 160€ ordainduz. Ekintzaileentzako diru-laguntzak emango dira, eta beste enpresa bat gure bezeroa izanez gero eta produktua kopuru handitan erosten badigu, deskontuak egingo dizkiegu erosketa bolumenaren arabera, baina prezioa finkoa izango da.

Gure produktua alokatzeko aukera ere emango dugu, eta horretarako 300€-ko fiantza bat eskatuko dugu. Alokatzeko aukera ONCE-ko partaideei eta pertsona ezinduei emango diegu. Hiru hilabete pasa ondoren, produktuarekin gustora badaude eta erabilgarria egiten bazaie erosteko aukera izango dute, eta 300€ horiek deskontatuko zaizkie azken prezioetik.